



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA  
2016/10/17

## **Gizarte Ekintzak "28 kexa" formal jaso ebazan Bizkaiko egoitzetan izandako 32 greba egunetan**

Isabel Sánchez Robles Gizarte Ekintzako Foru Diputatu andreak agerraldia egin dau gaur goizean, berak eskatuta, Bizkaiko Batzar Nagusietan, Lurraldeko gizarte zerbitzuetako zentroetarako egiten diran greba deialdien aurrean bere saileko profesionalek jarraitu behar daben “jarduketako protokoloaren” barri emoteko eta nagusien egoitza horreetan izandako grebea dala eta Batzarretako taldeek planteau dituen hainbat gairi erantzuteko. Sei lanuzte deialdi izan ebazan martia eta urria arteko epealdian gertautakoaren barri emon ostean, Aldundiko arduradunak esan dauenez, bere sailak “28 kexa” formal jaso ditu 32 greba egun horreetan.

Martiaren 17an greba jardunaldiak hasi ziranetik izandako gertakarien kronologiari jarraituz, Sánchez Roblesekin adierazo dau bere sailak, garagarrilaren 8tik 14ra bitartean deitutako grebea dala eta pertsona nagusien gizarte zentroetan bizi izan ziran egoeren gaineko “jakinarazpena” bideratu eutsala gitxieneko zerbitzuak agintzeko eskumenak dituan Eusko Jaurlaritzako Lan Zuzendaritzari. Aitatutako greba deialdi hori bosgarrena izan zan, eta %50 eta %60 arteko gitxieneko zerbitzuak izan ebazan azkena.

Aldundiko teknikariek eta alkargoko kide diran osagileek egindako ikuskapen aktatan oinarrituta gauzatutako jakinarazpen horretan, Aldundiaren eretziz “lehen mailako puntuak” diranetan egoitzatan izandako egoera jakinarazo jakon Eusko Jaurlaritzari: elikadurea, garbiketea, osasunagaz erlazionautako zainketak eta bertan dagozanen segurtasuna. Lan zuzendaritzari bideratu jakon idazkian argi adierazo zan Foru Aldundiak eukan “konpromisoa”, “ezelango egoeratan ez daiten tratu txar egoerarik gertatu, ezta greba egoeretan be”. Berbaz berba, “tratu txar instituzionaleko egoeren aurrean” egon eitekeala erakusten eben “ebidentziak” jakinarazo ebazan Aldundiak.

Diputatu andreak esan dauenez, jakinarazpen hori izan zan hurrengo greba deialdian –irailaren 21etik urriaren 4ra bitartekoan– laneko agintaritzak gitxieneko zerbitzuak “%70eraino orokorrean” eta “%80eraino zentroetan behar gehien egiten dan uneetan” igotea erabagitearen zergaitia.

Diputatuak azaldu dauenez, greba jardunaldi horreen aurreko egunean, Aldundiak jarduketarako protokoloa ezarri gura izan eban bere Saileko Ikuskapen zerbitzuan aritzen diran beharginentzat, Bizkaiko gizarte zerbitzuetako zentroetako “erabiltzaileen arreta integralerako eta osasunerako eskubidea bermatzeko, arreta faltea eta euren funtsezko eskubideak urratzea eragin daikien egoeratan”.

Sánchez Roblesekin adierazo dauenez, Aldundiak “zorrotz” jarraitu eban agindu hori, eragin gehieneko zentroetan batez be, eta jarduketa horretatik sortu ziran “azkenengo greba jardunaldiko hainbat kontsiderazino”. Diputatu andreak, “batez beste 15 eta 30 minutu arteko atzerapena aitatu dau armosua, bazkaria edo afaria emoteko orduan”, edo “30 minututik gorakoak izan ez diran atzerapen orokorrak pertsonak ohetik altxeteari jagokonez”. Zainketari jagokonez, “kasu batzuetan egiaztatu ahal izan da ez dala zainketarik egon erabiltzaile asko



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

egozan gune komunetan”, esan dau. Dana dala, “orokorrean”, bete egin dirala erabiltzaileen jarteko edo ohean egoteko moduen eta xurgagailuen aldaketak, eta sendatzeek “ez dabela eraginik jasan” esan dau Sánchez Roblesek. Oinarrizko higieneari jagokonez, zentroek “gitxienez astean dutxa bategaz jarraitu eben, eta batzuek bi; eta beste zentro batzuek programautako higiene guztiakaz jarraitu dabe”.

Hori dala eta, datu horreetan oinarrituta, Sánchez Roblesek balorau dauenez, azkenengo greba deialdiaren eragina aurrekoak baino “nabarmen txikiagoa” izan da erabiltzaileentzat, greba jardunaldiak luzatu diran arren. Grebaren ondorioz, bere sailak “findu” egin ditu Ikuskapen eta jarraipenerako mekanismoak, eta horretarako eskumenak dituen agintaritzak gitxieneko zerbitzuak zabaldu egin ditu.

Aldundiko arduradunak behin baino gehiagotan esan dau Aldundiaren egitekoa “pertsona nagusien duintasuna eta integritadea zaintzea dala”, eta “greba egunetan puntu horreek eraginik ez jasatea”. “Beste ezer baino lehen egoera zaurgarrian dagozan pertsonak dira, beharginen errebindikazioak errespetetan doguzan arren”, esan dau, eta horren ostean, lan arloko gatazkea “ahalik eta arinen konpontzea” gura dauela adierazo dau.

## BATZARRETAKO TALDEAK

Batzarretako taldeak bat etorri dira diputatu andreagaz, grebari esker, lurraldean dagozan nagusientzako zentroetarako gura dogun kudeaketa ereduaren gaineko “eztabaidea zabaldu egin dala” esatean. Arturo Aldecoak (Taldea mistoa) esan dauenez, beharbada “hirugarren adinekoen arretaren eta titanioaren artean aukeratzeko” unea izan daiteke, biztanleriaren piramidearen eboluzinoa ikusita gaur egungo ereduak “ez dauela funtzionauko” pentsau daitekelako. Konponbiderako “gogoeta sakona” egin behar da.

PP taldeak, Eduardo Andrés batzordekidearen ahotan, Aldundiak bere ikuskapeneko mekanismoak hainbat hilebete lehenago zabaldu ez izana tamalgarria dala esan dau, grebek iraun eben bitartean nagusien egoitzetan zer ari zan gertatzen jakiteko. Diputatu andreak eta EAJ-PNVko Batzarretako taldeak bagilean eta garagarrilean “egia ezkutau” ebela esan dau, “ez zala ezer gertatzen eta tratua egokia zala” behin eta barriro esaten ebelako, garai haretan daborduko “tratu txarreko egoerak” gertatzen ari ziran arren.

Nuria Atienza Podemos Bizkaia taldeko batzordekideak “kalidadeko enplegua” eskatu dau, egoitzetako erabiltzaileen “duintasuna bermatzeko”, arazoaren jatorria egoitza pribaduetako beharginen soldatan dagolako, sare publikoan baino “%40 eta %60 artean gitxiago” kobretan dabelako eta, gainera, lan karga “handia” jasaten dabelako.

Josu Unanue EH Bilduko bozeroalearen eretxiz, sindikatuek kritiketan dituen lan baldintza horreek “zerbitzu txarragaz lotuta dagoz”. “Grebak agerian itzi dau sektorearen errebindikazioa dan arazoa”. Egoitza publiko edo pribadu batean behar egitearen arteko aldeak be aitatu ditu, eta diputatuari Bizkaian egiten dan kontzertazio moeta ganean galdetu deutso “enpresa batzuk milioi askoko irabaziak lortzen ari diralako”.

Foru Gobernu eusten daben Batzarretako taldeek –EAJ-PNV eta PSE-EE– euren aldetik, Aldecoak beste eredu bat aztertzeke egin dauen proposamena jaso dabe. Juan Otermin sozialistak eskaria egin dau “hemen –Batzar Nagusietan– eta Eusko Legebiltzarrean



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAI A**

etorkizunerako gura dogun eredu eztabaidetako”. Jon Sánchezek, bere aldetik, “euren eretxia argi eta garbi azaltzera” eta “eredu bakotxaren kostuaren gainean berba egitera” animau ditu oposizionoko taldeak.

Bere esku-hartzean, batzordekide jeltzaleak kritikau egin dau Bizkaiko egoitzetan nagusitasuna dauen sindikatuaren bidearen nondik norakoa, adierazo dauenez, 2014an sinau zan hitzarmena “oso ona” zala esatetik bi urte geroago hitzarmen bera kritikatzera pasau dalako. Holan, sindikatu “batzuek” egiten daben behar “politiko-soziala” definidu dau, eta Aldundiak egindako Neurbi azterlan soziologikoa jarri dau mahai gainean. Azterlan horretan, beharginek “2,80 eta 4,01 puntu” arteko noteagaz baloretan eben gizarteko eragileen beharra.

Egoitzetako lan gatazkaren kasuan, Aldundiari zerbitzuak gainbegiratzea jagokola esan dau Sánchezek, eta ez beharginen eta enpresen arteko lan gatazka bateko “bitartekaria” izatea, laneko hartu-emonen ereduan aldaketaren bat ez badago.

#### ARRETA GOIZTIARRARI BURUZKO FORU DEKRETU BARRIA

Beste alde batetik, saio berean, PP taldeak, 2015eko martian Batzar Nagusiek onartutako arauz besteko proposamena kontuan izanda, arreta goiztiarreko norbanako laguntzak zabaltzeko hartu diran neurrien gaineko azalpenak eskatuko deutzaz Sánchez Roblesi. Diputatu andreak azaldu dauenez, informazioa emoteko behar hori Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailetik bertatik egin zan, ikastetxeetara bialdu ziran gutunen bitartez.

Diputatu andreak saioan iragarri dauenez, “urte amaierarako” prest egongo da daborduko administrazioen arteko “koordinazioa” eta laguntza horreek eskuratzeko “bidea” arautuko dauen foru dekretua. Eskarien “sarrerako puntuak” Lehen eta Bigarren hezkuntzako ikastetxeak eta “Berritzeguneak” izango dirala esan dau Sánchez Roblesek. Aldundiak erabilten dituan azkenengo datuek “2.000 aurre-inkripzino” eta arreta goiztiarrerako laguntza horreen onuradun izango diran “600 ume” erakusten ditue.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA  
17/10/2016

## **Acción Social recibió "28 quejas" formales en 32 días de huelga en las residencias de Bizkaia**

La diputada foral de Acción Social, Isabel Sánchez Robles, ha comparecido esta mañana en las Juntas Generales de Bizkaia, a iniciativa propia y de la oposición, para dar cuenta del “protocolo de actuación” a seguir por los profesionales de su departamento ante convocatorias de huelga en los centros de servicios sociales del Territorio, así como para responder a varias cuestiones planteadas por los grupos junteros relacionadas con la pasada huelga en estos centros de mayores. Tras ofrecer un relato de lo acontecido entre los meses de marzo y octubre en la que se llevaron a cabo hasta seis convocatorias de paro, la responsable foral ha informado de que su departamento ha recibido un total de “28 quejas” formales en esas 32 jornadas de huelga.

Siguiendo una cronología de los hechos desde que empezaron las jornadas de paro el 17 de marzo, Sánchez Robles ha explicado que su departamento trasladó a la dirección de Trabajo del Gobierno Vasco, competente para decretar los servicios mínimos, una “comunicación” con las situaciones que se vivieron en los centros sociales de personas mayores por la huelga convocada entre el 8 y el 14 de julio, la quinta convocatoria y la última con servicios mínimos de entre el 50 y el 60%.

En esa comunicación (que no informe), elaborada con las actas de inspección realizadas por los técnicos de la Diputación y por médicos colegiados, se informó al Ejecutivo vasco de cuál había sido la situación de los centros en lo que la Diputación considera “hitos prioritarios” : la alimentación, la higiene, los cuidados de salud y la seguridad de los residentes. En el escrito que trasladó a la dirección de Trabajo , se llegó a constatar el “compromiso” de la Institución foral bajo el cual quería que “en ninguna circunstancia se podía dar una situación de maltrato, y tampoco en situaciones de huelga”. De forma literal, la Diputación llegó a trasladar a Lakua que “las evidencias” apuntaban a que se podía estar “ante situaciones de maltrato institucional”.

Esta notificación fue, según la diputada, la que indujo a que, en la siguiente y hasta ahora última convocatoria de huelga –entre el 21 de septiembre y el 4 de octubre-, la autoridad laboral decidiera elevar los servicios mínimos “hasta el 70% en general”, y “hasta un 80% en los momentos de mayor actividad en los centros”.

La diputada ha informado de que un día antes a estas jornadas de huelga, la Diputación difundió un protocolo de actuación para los profesionales del servicio de Inspección de su departamento con el objeto de “garantizar el derecho a la atención integral y la salud de las personas usuarias” de los centros de servicios sociales de Bizkaia “en aquellas situaciones que pudieran provocar una falta de atención y conculcación de derechos fundamentales”.

Sánchez Robles ha explicado que la Diputación siguió de manera “rigurosa” esta instrucción, especialmente en los centros de mayor afectación, y de esta actuación se derivaron “algunas consideraciones de la última jornada de huelga”. La diputada ha hablado de “retrasos, de media, de 15 a 30 minutos en la administración del desayuno, la comida o la cena” o “retrasos generalizados que no han pasado de 30 minutos en cuanto a levantar a las personas”. En lo que respecta a la vigilancia, en “algunos casos sí se ha constatado la inexistencia de vigilancia en



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

zonas comunes donde había numerosas personas usuarias”, ha afirmado. En cambio, Sánchez Robles ha indicado que se ha cumplido “de manera general” en los cambios posturales y de absorbentes de los usuarios, y en la atención sanitaria, donde el suministro de medicación y las curas “no han sufrido alteraciones”. En cuanto a la higiene básica, los centros mantuvieron “como mínimo una ducha semanal, algunos incluso dos; y otros centros han mantenido todas las higienes programadas”.

Por ello, en base a estos datos, Sánchez Robles ha valorado que la incidencia de la última convocatoria de huelga ha sido “significativamente menor” en los usuarios que las precedentes, a pesar de alargarse las jornadas de paro. La huelga ha servido para que el departamento “afine” los mecanismos de Inspección y seguimiento, y se incrementen los servicios mínimos por parte de la autoridad competente.

La responsable foral ha vuelto a recordar en varias ocasiones que la Diputación está “para salvaguardar la dignidad e integridad de las personas mayores” y que ésta “no se vea alterada en los días de huelga”. “Lo primero son las personas más vulnerables, pese a que seamos respetuosos con la reivindicación de los trabajadores”, ha dicho, para después desear que el conflicto laboral “se resuelva a la mayor brevedad posible”.

## GRUPOS JUNTEROS

Los grupos junteros han coincidido con la diputada en que la huelga ha servido para "abrir un debate" sobre el modelo de gestión que queremos para los centros de mayores del territorio. Arturo Aldecoa (Mixto) ha sostenido que "igual es el momento de elegir entre la atención a la tercera edad y el titanio", ya que la evolución de la pirámide poblacional invita a pensar a que el modelo actual “no va a funcionar”. La solución exige “muchísima reflexión”.

El PP, en boca de su apoderado Eduardo Andrés, ha lamentado que la Diputación no ampliara los mecanismos de inspección meses antes de hacerlo, para conocer lo que estaba ocurriendo en los centros residenciales durante las huelgas. Ha acusado a la diputada y al grupo juntero del PNV de “ocultar la verdad” en los meses de junio y julio cuando repetían “que no pasaba nada y que existía un trato adecuado”, mientras ya se estaban produciendo “situaciones de maltrato”.

Por su parte, la juntera de Podemos Bizkaia Nuria Atienza ha pedido “empleo de calidad para garantizar la dignidad” de los usuarios de residencias, ya que el origen del problema está en el sueldo de los trabajadores y trabajadoras de las residencias privadas que cobran "entre un 40 y un 60% menos" que en la red pública, sufriendo además una “gran” carga de trabajo.

Para el portavoz de EH Bildu, Josu Unanue, esas condiciones laborales que critican las centrales sindicales “van unidas al mal servicio”. “La huelga ha hecho visible un problema que es una reivindicación del sector”. Se ha referido también a las diferencias salariales entre la red pública y la privada, y ha cuestionado a la diputada por el tipo de concertación que se hace en Bizkaia “en el que las empresas están teniendo ganancias millonarias”.

Por su parte, los grupos junteros que apoyan al Gobierno foral – PNV y PSE-EE - , han recogido la propuesta de Aldecoa de estudiar un nuevo modelo. El socialista Juan Otermin ha pedido “aquí – en las Juntas Generales- y en el Parlamento Vasco, debatir el modelo que



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

queremos para el futuro”. Por su parte, Jon Sánchez ha animado a la oposición a “fotografiarse” y “hablar del coste de cada modelo”.

En su intervención, el jeltzale ha criticado la deriva del sindicato mayoritario en las residencias de Bizkaia que ha pasado de decir -según él- que el convenio firmado en 2014 era “buenísimo” a criticarlo dos años después. En este sentido, ha definido el papel “político-sindical” de "algunos" sindicatos y ha sacado a relucir que en el estudio sociológico foral Neurbi, los trabajadores valoraron el trabajo de los agentes sociales con una nota de entre “los 2,80 y los 4,01 puntos”.

En el caso del conflicto laboral de las residencias, Sánchez ha señalado que a la Diputación le corresponde "supervisar" los servicios y no ser “mediador” de un conflicto laboral entre trabajadores y empresas, salvo que haya un cambio en el modelo de relaciones laborales.

#### NUEVO DECRETO FORAL SOBRE ATENCIÓN TEMPRANA

Por otra parte, en la misma sesión, el PP ha pedido explicaciones a Sánchez Robles por las medidas adoptadas por la Diputación para llevar a cabo la difusión de las ayudas individuales a la atención temprana, en cumplimiento de una proposición no de norma aprobada por las Juntas Generales en marzo de 2015. La diputada ha explicado que esta labor informativa fue llevada a cabo por el propio departamento de Educación del Gobierno vasco a través de misivas a los centros escolares.

La diputada ha anunciado en la sesión que “a finales de año” estará preparado ya el decreto foral que regule la "coordinación" entre las distintas administraciones y el "acceso" a estas ayudas. Sánchez Robles ha indicado que los “puntos de entrada” de las solicitudes serán los centros educativos de Infantil y Primaria, y los “Berritzegunes”. Los últimos datos que maneja la Diputación hablan de “2.000 preinscripciones” y de “600 niños y niñas” beneficiados de estas ayudas a la atención temprana.